



GETXO UDALERRIAN ENPRESAK SORTZEA, DIBERTSIFIKATZEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO UDAL ESPAZIOAK ALDI BATERAKO LAGATZEA ARAUTZEKO OINARRIAK. GETXO ITSAS HUB.

7 ERANSKINA. ENPRESAK, ENTITATEAK edo PERTSONA FISIKOAK AURKEZTU BEHARREKO DERRIGORREZKO DOKUMENTAZIOA.

- a) Eskatzailea pertsona fisikoa baldin bada:
 - a. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
 - b. Proiektua bultzatzen duten pertsonen errolda-ziurtagiria.
- b) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan:
 - a. Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, Nortasun Agiri Nazionalarekin eta eskatzailearen ordezkapen-botereekin batera.
 - b. Enpresa edo entitatea eratzeko eskrituren fotokopiak, gerora egindako aldaketekin eta dagozkien erregistroetako inskripzioekin.
- c) Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak sinatutako kontratu pribatua ere aurkeztuko da.
- d) Sorrerarako Garapen Agentzia baten tutoretzaren egiaztagiria.

DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIA:

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko.

Gainera administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu (aurka eginez gero, bete "Eranskina_Datuak kontsultatzeko oposizioa"); kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Getxoko Udalak zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazio hau:

- Getxoko Udala: Zerga-betebeharrak egunean edukitzearen kontsulta.
- Getxoko Udala: Dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharretan egunean egotearen kontsulta.
- Foru Aldundiak: Zerga-betebeharrak egunean edukitzearen kontsulta.
- Foru Aldundiak: AE epigrafeen kontsulta
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia (GSDN): GSDNren ordainketa egunean izatearen kontsulta.



GETXO UDALERRIAN ENPRESAK SORTZEA, DIBERTSIFIKATZEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO UDAL ESPAZIOAK ALDI BATERAKO LAGATZEA ARAUTZEKO OINARRIAK. GETXO ITSAS HUB.

LAGAPENEAN ZEHAR ETA HORI AMAITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lagapenetik urtebete igarotzen denean proiektuaren jarraipen-txostena aurkeztu beharko da, honako hauek jasoko dituen: proiektuaren aurrerapen maila, proiektuak tokiko esparruan duen inplikazioa (enpresa proiektuarekin lotutako ekintzak, hitzaldiak...) eta lagatako espazioaren erabilpen-maila.

Hasieran aurreikusitako iraupena luzatzeko lagapenaren eskaera beharko da, eta Getxoko Udalaren berariazko adostasuna, erabakia justifikatzen duena. Horretarako, urteko memoria bat aurkeztu beharko da eta alderdi hauek aintzat hartuko dira: proiektuaren aurrerapen-maila, proiektuak tokiko esparruan duen inplikazioa (enpresa-proiektuarekin lotutako ekintzak, hitzaldiak...) eta lagatako espazioaren erabilpen-maila.

Hub-eko egonaldia amaitzean, amaierako memoria aurkeztu beharko dute, aipatutako alderdiak jasoko dituen: proiektuaren aurrerapen-maila, proiektuaren inplikazioa tokiko esparruan eta lagatako espazioaren erabilpen-maila.

Erabiltzaileek instalazioak eta elementu guztiak sartu zirenean bezala utzi beharko dituzte. Zerbitzua amaitzean suntsitu egingo dira espazioan gelditu diren elementu guztiak; hau da, mahaietan, armairuetan eta abarretan utzitako guztia.